



Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako kaleetan bizi diren etxerik gabeko pertsonen kopurua % 34 igo da

HAMAIIKA TELEISTA :: 12/10/2023

Etxerik gabeko pertsonen kopurua 2018an 430 izatetik 2022an 658 izatera igaro dira.

Bi urtez behin egiten dute EAEn bizitegi bazterketa larrian daudenen egoerari buruzko azterlana. Iazkoa aurkeztu dute Gasteizen, Eusko Jaurlaritzak antolatutako jardunaldietan. 23 udalerritan egin zuten zenbaketa. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako kaleetan bizi diren etxerik gabeko pertsonen kopurua %34 igo da, 2018an 430 izatetik 2022an 658 izatera igaro dira. Egoera horretan dauden gazteak %25etik %35era igaro dira, eta emakumeak dira zaurgarrienak.

<https://eh.lahaine.org/araba-bizkaia-eta-gipuzkoako-kaleetan>